

RUEDA DE PRENSA

Bakearen aldeko Koordinakundeak indarkeriaren Biktimen aldeko Aitorpen, Elkartasun eta Oroitzapenerako V. ekitaldirako deialdia egiten du

Bakearen aldeko Koordinakundeak urteak daramatza indarkeriaren biktimen aldeko aitorpen, elkartasun eta oroitzapen sozialerako ekitaldi publikoak egiteko konpromiso sendoa bere eginez. Biktimak gure gizartean jasan izan dugun eta jasaten dugun indarkeriaren ondoriorik mingarrienak eta konponezinenak dira.

Bosgarren urtez jarraian, garai honetan, biktimen aldeko ekitaldia antolatzen dugu. Beste urte batez, biktimak gogora ekartzea eta gure hurkotasuna erakustea zein premiazkoa eta beharrezkoa den adierazten dugu. Egiteko hau ez da agortzen. Ez da nahikoa behin konpliztea, biktimen samina behin aitortzea eta existituko ez balira bezala gure geroa eratu eta aurrera egitea. Gure axolagabekeria gizarte osoaren aurkako ekintza kriminalaren arrakasta litzateke eta indarkeria ezarriko litzateke gizarte bizikidetasuna zapalduz.

Orokorrean, saminak deserosotasuna dakarkigu eta enbarazu egiten digu, eta, horregatik, ez diogu begiratzen eta ihes egin nahi diogu. Beraz, biktimak deserosoak dira, bidegabekeriak eragiten duen saminaren irudikapenik gordinena direlako, giza gaiztakeriaren mugak gogora dakarzkigutelako. Ihes egite honek geure gizatasunetik aldentzen gaitu, zentzugabeko indarkeriaren biktimen samina norik bere egitea eta biktimei elkartasuna erakustea direlako gure bizikidetasunaren oinarria.

Bakearen aldeko Koordinakundeko kideon ustez, terrorismoaren biktimen saminak, ezkutatu ez ezik, gure historiaren zati bihurtu behar du eta gure gizartean azaldu egin behar du. Beraiek gizarte osoaren aurkako terrorismoaren erasoaren biktima zehatzak direlako, gure gizarte anitzaren bizikidetasuna gastatu eta gure etorkizun politikoan eragin nahi duen erasoaren biktima hain zuzen ere. Gainera, biktimei eragindako samina gutariko bakoitzaren bizi eta askatasunaren aurkako eraso da. Horregatik beraien saminak guztion samin izan behar du; gure oroitzapen eta gerora erantsi behar ditugu, dagoeneko iraganeko eta gaurko zati direlako eta ezinezkoa delako gure gizartearentzako etorkizun duina osatzea, intolerantzia eta zentzugabekeria gehien sufritu dutenak kontuan hartzen ez baditugu.

Indarkeriaren biktimen aldeko oroitzapenerako ekitaldi hauen bidez ez dugu zorrik kitatu nahi. Gure artera ekarri nahi ditugu eta beren presentziak gure geroa astindu behar duela aldarrikatu. Asasinatutako mila lagun inguruz, apurtutako beste hainbeste familiaz, milaka lagun mehatxatuz eraturako oraintsuko historia... Horixe da gure historia eta kontuan izan behar dugu gure etorkizun politiko eta soziala itxuratzerakoan. Erasoen erantzuleak, erasoak jasaten dituztenak, erasoaren testiguak eta gu guztion ondorengoak historikoki behartzen eta konprometitzen gaituen errealitate ankerra da.

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

Oroitzapena ez da iragana gogora ekartzea bakarrik, zuzentasuna eskatzen digun iragan horretaz jabetuz, orainean jardutea eta etorkizun sendoa eratzea baizik. Etorkizun zuzen, aske eta solidarioagoa.

Guzti honengatik, biktimen oroitzapena gure orain eta gerora eransteko konpromisoa hartzen dugu; hau da, biktima guztiak, izen eta abizena duten gizon eta emakume zehatzak, egoera anitzak bizi dituztenak oroitzeko konpromisoa hartzen dugu. Ezin da politika eta gizarte mailan jardun, gizarte osoaren izenean gizakiaren aurkako irainik larriena jasan duten gizon eta emakumeak ahazturik.

Baina hau ez da teoria hutsa, zehazpen praktikoak ditu.

- Gutariko bakoitza biktimengana hurbildu dadila. Denon eta gutako bakoitzaren eginbeharra da beraiei gure babes, bakarka zein jendaurrean, helaraztea, beraien aldeko aitorten, elkartasun eta oroitzapenerako ekitaldi publikoetan parte hartuz.
- Biktimen bizipena errealitate kolektibo bezala bere egingo duen gizartea itxura dezagula, honek elkarte nortasuna aberastu dezan, eta haien presentzia eta gomuta indarkeriaren eta bere bidegabekeriaren erabateko aurkakotasunaren bultzatzailea, gehien sufritzen dutenen aldeko elkartasun adierazpenaren eragilea izan dadin; azken batean, ondorengo hauen alde egiten duen gizartearen sustatzailea izan dadin:
 - Adierazpenekin ez ezik, indarkeriaren eta ezarpenaren aurkako politika gauzatu, indarkeriari edozein zilegitasun politiko kenduko dion bizikidetasuna.
 - Lehiakidea etsai bihurtzen duten eta nortasun eskusibo eta baztertzat hartzen zehaztea eta sendotzea oinarritzat dituzten jarrera ideologiko eta politikoen polarizazioa saihesten ahaleginduz, komunikazio politiko eta sozialerako esparruen bidez integrazio prozesuak sendotuko dituen bizikidetasuna.

Razionaltasuna, ondo ulertutako hunkiberatasuna, malgutasuna erabiliz eta gure egia erlatibotzat hartuz gure alde legitimoak gizarte anitzean konpontzean datza.

- Erakundeek, eragile sozial eta politikoen, gure agintariak eta iritzi publikoa sortzen dutenek, beren adierazpen eta jokaeretan, biktimen begirada beren diskurtsoetara atxikitzeko erantzukizuna har dezatela era alderdikoian erabiltzeko tentaldiari uko eginez.
- Demokraziak ez dezala indarkeria bidegabe erabili eta gizarteak biziki eska dezala hori.

Datorren urtean, egutegi baten bidez ikustaraziko dugu oroitzapen kolektibo eta iraunkorraren ideia hori; egutegi horretan, terrorismoaren biktima bat ekarri duen egun bakoitzaren oroitzapen soziala egingo dugu. Markatuta dauden urteko 314

**COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA**

egunetako bakoitza hilketaren baten edo batzuen urteurrena da. Hauxe da dagoeneko gure geroaren errealitatea.

Dei egiten diegu herritar guztiei biktimekiko beren aitoren, elkartasun eta oroitzapena erakuts dezaten, abenduaren 18an, larunbatez, 13:00an, Bilboko Doña Casilda Parkean, Gregorio de la Revilla kalearen parean. Oroitzapen ekitaldia egingo dugu, honako konpromiso hau sendotzeko: gure etorkizunak biktimen esperientzia erantsiko duela, etorkizun aske eta solidarioagoa eraikitzeko itxaropenarekin.

La Coordinadora Gesto por la Paz convoca el V acto de Reconocimiento, Solidaridad y Memoria a las Víctimas de la violencia

Gesto por la Paz lleva años asumiendo el compromiso firme de realizar actos públicos de reconocimiento, solidaridad y memoria social hacia las víctimas de la violencia. Las víctimas son la consecuencia más dolorosa e irreparable de la violencia que hemos padecido y que padecemos en nuestra sociedad.

Éste es el quinto año consecutivo que convocamos un acto de reconocimiento a las víctimas alrededor de las mismas fechas. Un año más reivindicamos lo importante, lo urgente y lo prioritario que resulta recordar a las víctimas y mostrarles nuestra cercanía. Esta labor no se agota. No se trata de cumplir una vez, de reconocer el dolor de las víctimas una sola vez y continuar con nuestro presente y planear nuestro futuro como si ellas no existieran. Nuestra indiferencia constituiría un éxito de la acción criminal sobre el conjunto de la sociedad y de la imposición de la violencia sobre la convivencia social.

En general, el dolor nos incomoda y nos molesta, por eso tratamos de no mirarlo y de alejarnos de él. Así pues, las víctimas son incómodas porque son la representación extrema del dolor que produce la injusticia, porque nos recuerdan los límites de la maldad humana. Esta huida nos aleja de nuestra humanidad, porque compartir el dolor y solidarizarse con las víctimas de la violencia irracional constituye la base de nuestra convivencia.

En Gesto por la Paz pensamos que el dolor de las víctimas del terrorismo, lejos de esconderse, debe formar parte de nuestra historia y debe estar presente en nuestra sociedad. Porque ellas son las víctimas concretas del ataque del terrorismo contra toda la sociedad, un ataque que trata de minar la convivencia en nuestra sociedad plural y de influir en nuestro futuro político. Porque el daño inflingido a las víctimas constituye además un ataque a la vida y a libertad de todos y cada uno de nosotros. Por eso su dolor nos tiene que doler a todos y a todas; las tenemos que incorporar a nuestra memoria y a nuestro futuro porque ya son parte del pasado y del presente y es imposible perfilar un futuro digno para nuestra sociedad si no tenemos en cuenta a quienes más han sufrido la intolerancia y la sinrazón.

Apdo. 10.152 - 48080 Bilbao – Tfno 94 4163929 - Fax 94 4153285

Apdo. 176 – 31080 Pamplona – Tfno. Fax: 948 223135

Apdo. 2.063 – 01080 Vitoria Gasteiz- Tfno. Fax: 945 226838

Apdo. 5.005 – 20080 Donostia – Tfno. Fax: 943 210906

e-mail: gesto@gesto.org <http://www.gesto.org>

**COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA**

Con estos actos de memoria hacia las víctimas de la violencia no pretendemos saldar una deuda. Queremos hacerlas presente y reclamar que su presencia debe conmocionar nuestro futuro. Una historia reciente con alrededor de un millar de personas asesinadas y otras tantas familias destrozadas, con miles de personas amenazadas... Esto forma parte de nuestro bagaje y debe estar presente a la hora de configurar nuestro futuro político y social. Se trata de una realidad brutal que nos obliga y compromete históricamente a las personas agresoras, a las agredidas, a todos los testigos y a los herederos de todos nosotros y nosotras.

La memoria no es exclusivamente recordar el pasado, sino que, desde la conciencia de ese pasado que nos reclama justicia, actuemos en el presente y construyamos un sólido futuro. Un futuro más justo, libre y compartido.

Por todo esto, nos comprometemos a trabajar para incorporar la memoria de las víctimas a nuestro presente y nuestro futuro; esto es, a hacer memoria de todas las víctimas, personas concretas con nombres y apellidos, en su compleja diversidad y pluralidad. No se puede actuar política ni socialmente como si ya no hubiera personas que han padecido en nombre de toda la sociedad el mayor de los agravios que se puede cometer contra un ser humano.

Pero esto no sólo es teoría, tiene unas concreciones prácticas.

- Que nos acerquemos personalmente a ellas. Es deber de todos y cada uno de nosotros y nosotras hacerles llegar nuestro apoyo, tanto en privado como públicamente participando en actos públicos de reconocimiento, solidaridad y recuerdo hacia todas ellas.
- Que configuremos una sociedad que incorpore la vivencia de las víctimas como realidad colectiva, enriqueciendo su propia identidad como comunidad, de forma que su presencia y su recuerdo, sea el motor de una oposición radical a la violencia y a su injusticia, el motor de nuestra expresión de solidaridad hacia quienes más están sufriendo; en definitiva, el motor de una sociedad que apuesta por:
 - Una convivencia que deslegitime políticamente la violencia, no sólo con declaraciones, sino desarrollando una concepción y ejercicio de la política que se oponga radicalmente a la violencia y a la imposición.
 - Una convivencia que refuerce procesos de integración a través de espacios de comunicación política y social, tratando de evitar la polarización de las posiciones ideológicas y políticas que convierten al adversario en enemigo y que parten de definir y reforzar identidades exclusivas y excluyentes.

Se trata de que resolvamos nuestras legítimas diferencias en una sociedad plural utilizando la racionalidad, la emotividad bien entendida, la flexibilidad y la asumiendo nuestra verdad como relativa.

**COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA**

- Que las Instituciones, los agentes sociales y políticos, nuestros dirigentes y generadores de opinión pública, en sus declaraciones y en sus comportamientos, asuman la responsabilidad de incorporar la mirada de las víctimas a sus discursos renunciando a la tentación de utilizarlas de manera partidista.
- Que la democracia no utilice la violencia de forma ilegítima y la sociedad sea activa en esa exigencia.

Visualizaremos esta idea de la necesaria memoria colectiva y permanente por medio de un calendario del próximo año, en el que haremos memoria social de todos y cada uno de los días en los que se ha producido al menos una víctima del terrorismo. Cada uno de los 314 días del año que están marcados es el aniversario de la pérdida de una o más vidas humanas. Está es ya la realidad de nuestro futuro.

Invitamos a la ciudadanía a mostrar su reconocimiento, solidaridad y memoria con las víctimas, el sábado 18 de Diciembre a las 13'00 h. en Parque de Doña Casilda de Bilbao, frente a la calle Gregorio de la Revilla. Realizaremos un acto de memoria que refuerce el compromiso de que nuestro futuro incorporará la experiencia de las víctimas, con la esperanza de construir un futuro más libre y compartido.

**COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA**

11 de diciembre de 2004

